

1. SARRERA

ORKLI Koop. Elkarteko Gizarte Kontseiluak sustatzen duen proiektua da *Orklidea*. Programaren oinarri eta zehaztapenak definitzen dira ondorengo txostenean.

2. XEDAPEN OROKORRA

2.1. EKIMENAREN XEDEA

Orklidea ekimenaren bidez, komunitatetik sortutako ekimenak lagundu eta beraiekin lankidetzan aritu nahi dugu, euskal gizartearen eraldatze prozesuaren parte izanez. Ekimen hauek Garapen Iraunkorrerako Helburuekin bat egiteaz gain, Orkliko lan-ildoekin ere bat egiten dutela azpimarratu nahi dugu.

2.2. DIRU-BALIABIDEAK

Ekimen hau Orkli Koop. Elkarteko IPDK heziketa eta kooperatiba sustapenerako zein interes publikoko beste helburu batzuetarako fondoetatik finantzatzen da. Konkretuki, Orklin historikoki landu izan dugun Kanpo IPDK lerroaren zabaltze ariketa bat suposatzen du, gaur arteko elkarten ekimen globalak finantzatzeko lerroari proiektu espezifiko eta esanguratsuak finantzatzeko aukera gehituz. Orklik proiektu hauek gauzatzeko protagonismo berezia hartuko du, gure eragin esparrua bailaratik kanpo ere kokatuz.

2.3. ENTITATE ONURADUNAK

Euskal Herriaren garapena bultzatzen duten proiektuak lantzen dituzten erakundeak izango dira ekimen honen onuradunak. Halaber, kontuan hartuko dira proiektuaren inpaktua Euskal Herritik kanporakoa izan arren Euskal Herrian antolatu eta garatzen diren dinamikak.

2.3.1. Onuradun izateko betekizunak:

- Irabazi asmorik gabeko elkarte batek garatutako proiektua izatea aurkeztuko dena.
- Jasotako dirua Euskal Herrian garatuko den proiektu batean erabiltzea.
- Proiektu izaera duen proposamena aurkeztea, elkartearen beraren urteko jarduna ez da diruz lagundua izango.

3. LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

3.1. PROIEKTUEK IZAN BEHARREKO EZAUGARRIAK

Proiektua definitzeko aurkeztutako txostenean, lan ildo horietako bakoitzean elkarteak / proiektuak landutakoa azaldu beharko da argi eta garbi, lan ildo horri dagozkion puntuak lor daitezen.

1	Berrikuntza
2	Orkliko pertsonen inplikazioa
3	Irismena
4	Elkarlana eta interkooperazioa
5	Belaunaldi arteko transmisioa
6	Komunikazioa-erabilera Euskara
7	Zaintza
8	Pertsonen arteko aukera berdintasuna
9	Euskara
10	Hezkuntza / Balioetan hezteak
11	Kultura Kirola
12	Ingurumena

Erakunde bakoitzak gehienez ere proiektu bat aurkeztuko du kategoria bakoitzera. Urtero aurkezteko aukera izango dute bai erakundeak eta baita proiektuak ere, beti ere, azken horiek bilakaeraren bat izan badute diru-ekarpena azkenengoz jaso zutenetik.

Proiektu izaera denbora mugek ematen diote ekimenari. Dirulaguntza hauek ez dira taldeei bideratuko, denbora muga konkretu bat duten ekimen edo proiektuetara baizik.

3.2. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Ondokoak dira kontuan hartuko diren gastuak eta mugak:

- Gehienez, proiektuaren aurrekontu osoaren %80a finantziatuko da.
- Proiektuarekin zuzenean loturarik ez duten gastuak ez dira onartuko.

3.3. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Bi kategoria banatu ditugu diru-ekarpenak egiteko:

- A Kategorian 35.000€ banatuko ditugu

- B Kategorian 15.000€ banatuko ditugu

3.4. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Proiektuaren finantzaketan Orklideako dirulaguntza bateragarria izango da beste dirulaguntza publiko eta pribatuekin batera, baina bete beharreko baldintza Orklik dirulaguntza emaileen artean gehiengoa izatea izango da.

4. PROZEDURA

4.1. DEIALDIA

Ekimen honetako dirulaguntzak jarraian arautzen den prozeduraren arabera emango dira. Deialdiaren oinarriak maiatzean jakinarazi zaizkie Orkli Koop. Elkarteko kideei, eta ekainean, webgunean argitaratuko dira (<https://www.orkli.com/eu/ekintza-soziala>), deialdia publiko eginez. Ekainean irekiko da proiektuak aurkezteko epea.

4.2. PROIEKTUAK AURKEZTEA

4.2.1. Proiektuak aurkezteko jarraitu beharreko urratsak:

- Proiektuak aurkezteko azken eguna 2025ko uztailaren 23a izango da.
- Proiektuak aurkeztu ahal izateko orklidea@orkli.es email-era interesa adieraziz mezu bat bidali beharko da. Mezu horri erantzunez eskaera burutzeko erabiliko den formulariora sarrera eduki ahal izateko gidalerroak emango dituen mezua jasoko du interesa erakutsi duen elkarteak.

4.2.2. Formularioan aurkeztu beharreko informazioa

- Erakundearen datuak: Izena, identifikazio fiskala, harremanetan jartzeko pertsonaren izen-abizenak, NAN, helbidea...
- Eskaera TXOSTENA. Ondorengo atalak zehaztu beharko dira:
 - Proiektuaren deskribapena.
 - Orkliren IPDK funtsen oinarrian dauden lan ildoekin duten lotura ahalik eta era zehatzenean azaltzeari garrantzi berezia emango zaio.
 - Xedea.

- Proiektuaren denbora plana.
- Antolaketan parte hartzen duten pertsona kopurua eta horietatik Orkliko bazkide direnen izen-abizenak. Boluntariotza ereduaren garapena.
- Ekimenaren onuradunak zeintzuk diren.
- Aurrekontua eta finantzazio plana. Derrigorrezkoa izango da aipatzea proiektu bera beste dirulaguntza deialdiren batera aurkeztu ote den.
- Erakundeak garatutako beste proiektuen erreferentziak eta lortutako emaitzak (AUKERAZKOA)
- Erakundeak indarrean dituen lankidetzak eta kolaborazioak (AUKERAZKOA)
- Erakundeak jaso dituen sariak edo aitortzak (AUKERAZKOA)

Honez gain, txostenaren bertsio laburra ere aurkeztu beharko da. Bertsio laburtu horren egitura eskatzaileei helaraziko zaie behin izen-ematea gauzatzen denean.

Eskaera prozesua euskaraz garatuko da eta dokumentazio guztiak ere euskaraz egon beharko du. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legean xedatutakoari jarraituz, ez du hizkera sexistarik erabiliko eta, gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, ez du erabilera estereotipaturik egingo.

4.2.3 Laguntza-eskabideak zuzentzea

Eskabidea puntu guztietan behar bezala beteta ez badago, edo aurreko artikuluan adierazitako dokumentazio guztia aurkezten ez bada, 10 eguneko epea emango zaio erakunde eskatzaileari akatsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko. Epe hori igarota, hala egin ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko da.

4.3. PROIEKTUAREN AUKERAKETA

4.3.1. Balorazio irizpideak

Proiektu bakoitza Orkli Koop. Elkartearen IPDK Funtsentzat definitutako lan ildoen arabera baloratuko da.

1	Berrikuntza
2	Orkliko pertsonen inplikazioa
3	Irismena
4	Elkarlana eta interkooperazioa
5	Belaunaldi arteko transmisioa
6	Komunikazioa-erabilera Euskara
7	Zaintza
8	Pertsonen arteko aukera berdintasuna
9	Euskara
10	Hezkuntza / Balioetan hezte
11	Kultura Kirola
12	Ingurumena

4.3.2. Epaimahaia

Aurkezten diren proiektu guztien artean Orkli Koop. Elkarteko Gizarte Eraldatzaile Batzordeak (aurrerantzean GEB) egingo du lehen aukeraketa. Aukeraketa hori egiteko irizpideak aurreko puntuan zehaztutakoak izango dira. Kontuan izan behar da, txostenean aipatzen ez diren puntuak ez direla baloratuak izango. Aukeraketa honetan kategoria bakoitzerako 3 proiektu aukeratuak dira, gehienez.

Orkli Koop. Elkarteko GEBk aukeratutako proiektuak <https://www.orkli.com/eu/ekintza-soziala> webgunean argitaratuak dira eta kooperatibako kide guztiek izango dute kategoria bakoitzean proiektu irabazlea zehaztuko duen azken aukeraketan parte hartzeko aukera.

Erakunde onuradunak aurkezturiko dokumentazioaren datuak egiazkoak direla frogatzeko, beharrezkotzat jotzen den dokumentazio eta informazio osagarri guztia eskatu ahal izango da.

4.3.3. Herrigintza deialdiarekin koordinaketa

Proiektu bat Herrigintza (Fagor Taldea) deialdiko irabazle izan bada, ezingo du Orklidea (Orkli) ekimeneko irabazle izan urte berean. Gipuzkoako bi kooperatiba izanik, dirulaguntzen banaketa zabalago bat bermatu nahi dugu honekin.

Horretarako, Fagor Taldearekin koordinatuta joango gara prozesuan zehar.

4.3.4. Ebazpena eta jakinarazteko modua.

Behin erabakia hartuta GEBk prozedura amaitzen duen ebazpena egingo du. Ebazpena webgunean (<https://www.orkli.com/eu/ekintza-soziala>) publikatuko da, beranduenera azaroaren 30erako.

5. LAGUNTZAK GAUZATZEA

5.1. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Ekimen honetako dirulaguntzak jarraian arautzen den prozeduraren arabera emango dira. Deialdiaren oinarriak maiatzean jakinarazi zaizkie Orkli Koop. Elkarteko kideei, eta ekainean, webgunean argitaratu dira, deialdia publiko eginez. Ekainean ireki da proiektuak aurkezteko epea.

5.2. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

5.2.1. Epea betetzea

Dirulaguntza jasoko duten proiektuak aukeratzen direnean eta erakunde onuradunei horren berri ematen zaienean hasiko da ordainketa prozesua. Horretarako, erakunde onuradunek berretsi egin beharko dute dirulaguntza jasotzeko beraien interesa. Erakunde onuradunak dirulaguntza esleitu izanaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik hasi eta hamabost eguneko epean, dirulaguntzari esanbidez uko egiten ez badio, dirulaguntza onartutzat hartuko da. Ordainketa transferentzia bidez egingo da erakundearen izenean dagoen kontu korrontean.

5.2.2. Emandako dirulaguntza onartzea

Proiektuaren aurkezpen dokumentuetan adierazitako exekuzio data amaitu eta gero, erakunde onuradunak memoria bat aurkeztu beharko du proiektuaren helburuen betetze maila eta gastuen justifikazioa egiteko.

a. Epea betetzea

Laguntza zein urtetarako eman den zehaztuta, urte horiexetan egin beharko dira inbertsioak eta gastuak edo aurreikusitako gastu-konpromezuak.

b. Emandako dirulaguntza onartzea

Dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik hasi eta 15 eguneko epean, erakunde onuradunak dirulaguntzari esanbidez uko egiten ez badio, dirulaguntza onartutzat hartuko da.

d. Jardueraren aldaketak jakinaraztea

Dirulaguntza onartua izan den jarduerarako, eta ez beste ezertarako, erabiltzea ezinbestekoa izango da. Orkli Koop. Elkartearekin hala adostera iritsiz gero, posible izango da aldaketaren bat onartzea behar bezala justifikatuta.

e. Argitaratzen diren euskarrietan Orkli Koop. Elkartearen aipamena

Publikoki zabaltzeko sortzen diren dokumentazioetan, karteletan, propagandan, edo argitalpenetan, Orkli Koop. Elkartearen logotipoa eta «Orkli Koop. Elkartek diruz lagundua» esaldiek azaldu beharko dute. Erakunde onuradunek euskara erabili beharko dute nahitaez diruz lagundutako jarduerak argitaratzean, iragartzean eta horiei buruzko publizitatea egitean.

5.3. EZ-BETETZEAK ETA DIRULAGUNTZAK BUELTATZEA

Justifikatutako arrazoirik gabe dirulaguntzaren eskaeran adierazitako helburuak beteko ez balira, gastuak ez balira egiaztatuko edo oinarri hauetan ezarritako baldintzaren bat beteko ez balitz, Orkli Koop. Elkartek dirulaguntza bueltatzea eska dezake. Puntu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ez-betetzetzat hartuko dira honako egoera hauek:

- a) Diruz lagundutako proiektua gauzatzeko epeak gainditzea, betiere Orkli Koop. Elkartek emandako luzapen edo aldaketa baimenik izan ezean.
- b) Proiektuan izandako gastuak onetsitako aurrekontuko zenbatekoaren %75aren azpitik geratzea ez-betetzeko arrazoia izan daiteke eta honek dirulaguntza galtzea eta aurrez jasotako kopuruak itzuli beharra ekar dezake, betiere erakundeak ez badu desbideratze hori Orkli Koop. Elkartearen aurrean behar bezala justifikatu.
- d) Proiektua beste zerbaitetara desbideratzea edo oinarri hauetan ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzak partzialki betetzen badira, eta onuradunak argi eta garbi konpromisoak betetzeko jardun duela egiaztatzen bada, egindako jarduera osoak guztizkoarekiko duen proportzioa kalkulatu da eta dirulaguntzaren zati bat ordainduko da, edo, hala badagokio, zati bat itzuliko da. Kasu horretan, onuradunak kobratzeko eskubidea duen zenbatekoa benetan eta behar bezala justifikatuta, eman den dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, Orkli Koop. Elkarrekin justifikazioa egiaztatu eta onartu ondoren.

Itzulketa egin behar bada honako hauek jakinaraziko zaizkio onuradunari: Itzulketa-prozeduraren hasiera, bete ez diren betebeharrak eta aldatutako dirulaguntzaren zenbatekoa. Prozeduraren ebazpenak dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu dela adieraziko du, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzultzea erabakiko du. Itzulketa egiteko modua ere jakinaraziko zaio onuradunari. Itzulketa-espeditentia hastea eta ebaztea –itzulketa osoa edo partziala izan– GEBri dagokio.

6. AZKEN XEDAPENAK

6.1. IRUDIAK ERABILTZEKO BAIMENA

Diru-ekarpena jasotzen duten erakundeak ordezkatzeko dituzten pertsonen beren irudia eta izena erabiltzeko baimena idatziz eskatuko zaie, ORKLI KOOP. ELKARTEKO politiken arabera, argazkiak atera aurretik.

6.2. DATU PERTSONALEN TRATAMENTUA

Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalak ORKLI Koop. Elkarrekin tratatuko ditu, tratamenduaren arduradun den aldetik, *Orklidea* lankidetzaren programako parte-hartzea kudeatzeko. Konkretuki, proiektuan parte-hartzeko eskaerak kudeatzeko eta proiektua hautatua izatekotan harremanetan jartzeko erabiliko ditugu zure datuak. Datu pertsonalak bi aldean artean dagoen harreman juridikoaren arabera tratatuko dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.b) artikuluekin bat eginez. Datu pertsonal horiek legeko betebeharrak betetzeko jakinarazpen hori egin behar zaien entitate edo erakunde publikoei soilik jakinaraziko zaizkie eta ez da nazioarteko transferentziarik egingo. Programa behar bezala kudeatzeko, hau da, onuradunak hautatu eta diru-ordainketa egiteko behar-beharrezkoa den denboran soilik gordeko dira datu pertsonalak, eta, behar izango balitz, datuen tratamendutik eta honen helburuetatik erator litezkeen erantzukizun

posibleen preskripzio epeetan zehar. Kasu guztietan, parte-hartzaileek eskubidea dute beren datu pertsonaletarako sarbidea izateko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko, tratamendua mugatzeko, datuak transferitzeko, tratamenduari aurka egiteko edo baimena atzera botatzeko lopdp@orkli.es helbide elektronikora edota Zaldibibidea z/g, 20240 Ordizia (Gipuzkoa) posta-helbidera eskaera bat bidaliz. Eskubide hauek behar bezala gauzatu ez direla uste bada, Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazio bat aurkeztu ahal izango da.

6.3. DIRULAGUNTZAK EMATEKO DERRIGORTASUNIK EZA

Orkli Koop. Elkartek dirulaguntzak eman gabe uzteko eskumena izango du baldin eta aurkeztutako proiektuek ez badute 40 puntuko langa pasatzen.

7. ARGIBIDEAK

@ orklidea@orkli.es

Web <https://www.orkli.com/eu/ekintza-soziala>

----- ERANSKINA: LAN-ILDOEN DEFINIZIO LABURRA -----

.- **Berrikuntza:** gai, arazo, aukera... jakin bat lantzeko orain arte eremu geografiko jakin batetan erabili ez den teknika, metodologia,... jakin baten erabilera sustatuko duen proiektu bat izatea.

.- **Orkliko pertsonen inplikazioa:** Orklidea programaren helburuetako bat gizarte-mailan dauden behar eta problematika ezberdinekiko sentsibilizazio jakin bat lortzea da, eta horretarako gure bazkide kolektiboaren sentsibilizaziotik hasten gara. Hori lortzeko proiektuaren ezagutza edo garapenean Orkliko pertsonak izan lezaketen papera eta inplikazioa ere baloratzen ditugu.

.- **Irismena:** proiektuaren inpaktu mailaren neurtzaile bat da faktore hau, zein pertsona edo kolektiboetara iristen diren ekimena eta bere ondorioak, ahal den neurrian kuantifikazio bat eskatuko dugularik (zenbat pertsona, maila geografikoan noraino,...)

.- **Elkarlana eta interkooperazioa:** kooperatiba izanik, gure oinarrizko balioa da lana elkarrekin eta beste batzuen kolaborazioa jasoz/beste batzuekin kolaboratuz egitearena. Horregatik zuen proiektuetan indarren-batura kontzeptuak lekua badu hori azaltzea eskatzen dizuegu. Beste alde batetik, norbanakoen elkarlan izpiritua ere bultzatu nahi dugunez, bolondres-lana bultzatzen duten proiektuei ere balio berezia eskainiko diegu.

.- **Belaunaldi arteko transmisioa:** belaunaldi ezberdineko giza-taldeen arteko harremanak sustatzeak balio espezifiko bat duela ulertzen dugu, giza-talde ezberdin horientzako eta gizartearentzat orokorrean hartu-eman horietatik sortzen den elkar-ezagutza eta ikuspegi-transmisioa balio sortzailea dela ulertzen dugulako.

.- **Euskara (erabilera eta komunikazioa):** maila sozialean garatzen diren ekimen ezberdinetan hizkuntzak jokatzeko duen komunikazio papera kontutan hartuz, eta Orklik barne eta kanpo harremanak euskalduntzeko duen helburua kontutan hartuz, ekimen horietan euskarak duen presentzia baloratzen dugu.

.- **Zaintza:** gizartean zaintza lanak duen, eta askotan ematen ez zaion, garrantzia bistaratu nahi dugu. Zaintza era zabalean ulertzen dugun arren, adin edo behar bereziei lotutako zaintza beharrak ditugu bereziki helburutzat. Denok behar dugu eta beharko dugu zaintza, gure biziko momentu jakinen batetan, baita zaintzaile bezala ere. Pertsonen ongizate fisiko eta psiko-emozionala zaintzeko baliagarriak diren ekimenak bultzatu nahi genituzke.

.- **Pertsonen arteko aukera berdintasuna:** egoera zaurgarritzat edo normatibidade-ohikotasun jakin batetik kanpo kokatzen diren pertsonen egoerei erantzun egoki bat emateko planteatzen diren proiektuak lotuko lirateke lan ildo honekin.

.- Euskara: Euskararen sustapena lantzen duten proiektuei lagundu ahal izatea nahiko genuke. Euskararen erabilera maila zabaldu edo erabilera horretan sakontzea bilatzen duten proiektuak, edo euskararen egoera zaurgarria kontutan izanik bere zaintzara bideratutakoak kontutan hartuko ditugu. Lan horiek garatzeko erakundeen arteko elkarlana ere sustatu nahi dugu.

.- Hezkuntza: Hezkuntza edozein gizarteren oinarritzko zutabetzat jotzen dugu, eta bizi guztian zehar garatzen den prozesu bat bezala ikusten dugu, ez soilik haurtzaro edo gaztaroan. Kalitatezko hezkuntza prozesuak aurrera eraman ahal izateko baliabide material zein metodologikoak behar direla ulertzen dugu, eta horiek eskuragarri egiten laguntzeko prest gaude. Bestalde, Hezkuntza aukera berdintasuna mamitzeko oinarritzko tresnatzat dugu, eta ondorioz berdintasun logiketatik landutako proiektuak bereziki baloratuko ditugu.

.- Kultura/kirola: Kultura eta Kirola euskal izaeraren erakusgarri garrantzitsuak izanik, euskal kultur/kirol adierazpen ezberdinak sustatzea dugu helburutzat. Kultur/kirol adierazpen horiek etorkizunera begira gure izaeraren parte izaten jarrai dezaten, eta zabalpen handiago bat izan dezaten bultzatuko ekimenak laguntzeko prest gaude.

Bizi osasungarriago bat osatze aldera kultur eta kirol ekimenek izan dezaketen eragina ere sustatzeko helburua dugu Orklin, eta ondorioz aurkeztutako ekimenek eremu horretan egin dezaketen aportazioa ere kontutan hartuko dugu.

.-Ingurumena: gure natura-ingurumena zaintze aldera landutako proiektuak bultzatu nahi ditugu, alde batetik. Naturak gure bizian duen garrantzia kontutan hartuta bere zaintza eta hobekuntzarako proposatu daitezkeen proiektuak jaso nahi genituzke.

Bestalde, gure eguneroko bizimoduak ingurumenean duen eragina murrizten lagunduko duten proiektuak ere lagundu nahi genituzke, hala nola aldaketa klimatikoan eragin zuzena duten bizi ohiturak jasangarriago egiten dituzten proiektuak (mugikortasun ereduetan eraginez, gure kontsumo ohituretan eraginez) lagunduz, era horretan natur ingurunearen kontserbazioa bultzatuz.